

→ AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 25. atala

DATA: 2024/12/13

GUREAN

IKASTOLA, GARBI- GARBI

Herri Ametsa Agenda 2030ean sartuta dago duela hainbat urte. Eskola jasagarriaren ziurtagiria du Ikastolak, gure ikasleek jasotzen duten ingurumen hezkuntza baliagarria dela adierazten duena. Urtean zehar, ekintza ezberdinak antolatzen dira eta haien artean, garbiketa plana. Gaur, DBHko ikasleek ikastolako txoko guztiak txukun-txukun uzteko asmoa dute. Patioa, frontoia, portxea, goiko zelaia eta mendi txiki izango dira lan egiteko eremuak. Larunbat honetan, gainera, Ate Irekiak egingo ditugu, beraz, dena prest izan behar dugu!



GURE INGURUAN

LARRATXOKO SAN TOMAS

NON: LARRATXOKO PLAZAN
NOIZ: ABENDUAK 14, BIHAR



Bihar, gure DBHko 4. mailako ikasleek postua jarriko dute Larratxoko San Tomas egunean. Txistorra eta sagardoa ez dira faltako. 10:00etatik aurrera zuen zain egongo dira. Jasotzen duten dirua ikasbidaiarako izango da. Urtero bezala, giro aparta espero da bihar Larratxon. Postuez gain, euskal dantzak ere eskainiko ditu Herri Ametsa Dantza Taldeak eguerdiko 13:00etan. Anima zaitzete!

TXERRI EGUNA

NON: OIARTZUN
NOIZ: ABENDUAK 14, BIHAR 10:00

Gabonei hasiera ematen dion azoka honetan, artisau postuak eta ganadu feria nagusi dira, txistorra eta taloak jateko postuak ahaztu gabe, eta betiere musika eta dantzarekin alaituta.

